

GETARIA / Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, gaur ipuin kontalaria liburutegian

GETARIA. DV. Gaur, apirilak 23, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta, Getariako Udalak ere bat egin nahi izan du ospakizun honekin, hurrei zuzendutako Ipuinaren Ordua antolatuz arratsaldean liburutegian.

Bi saio izango dira bertan Itziar Zubizarretak eskainiko dituenak, lehena 17:30etan 2, 3, eta 4 urte bitarteko hurrei zuzendua euren gurasoekin, eta bigarrena, arratsaldeko 18:00etan 5 urtetik aurrerakoei zuzendua.

Bestalde, Liburuaren Nazioarteko Egunarekin lotuta, bihar, osteguna, arratsaldeko 18:30etan udaletxeko pleno aretoan Getariako Udalak haur zein nagusientzat antolatutako VII. Literatur Lehiaketako sariak emango dira, epaimahaiak astelehenean hauen inguruko erabakia hartu ostean.